

JOSEAN MORLESÍN MELLADO

Nestor Basterretxea jaio zeneko mendeurrena dugu aurten eta erakunde askok urtean zehar antolatu dituzten egitasmoiei esker euskal artista nabarmen honen lanak berriz ere begiesteko edo lehen aldiz ezagutzeko aukera ezin hobea zabaltzen zaigu. Ospakizun hauen azken etapan, Basterretxearen izaera poliedrikoaren alderdi zehatz bat ezagutzera gonbidatzen gaitu Durangoko Arte eta Historia Museoak, irudigintza eta diseinu grafikoa kokatzen diren lanak erakutsiz.

Museoko zuzendariak berak, Garazi Arrizabalaga Cabrerizok, komisario eta koordinazio lanak egin ditu 'Nestor Basterretxea: Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea' izeneko erakusketan. Ezin dugu ahaztu eskultura, zinemagintza, arkitektura, diseinu industrial eta beste hainbat diziplina jorratu zituen sortzaileak, lehenik eta behin, marrazkilaritzat zuela bere burua. Hau da, ideiak proiektatzen hastea marrazten hastea zen. Esan beharra dago ere ikusizko komunikazioaren arloan zuen esperientzia urruntik zetorrela. Gaztea zela, irudigile gisa lan egin zuen Argentinako publizitate agentzia batean.

Durangon otsailaren 2ra arte bisita dezakegun erakusketak, paper gainean egindako trazuetatik abiatuz, lau atal orokorretan sailkatzen du Basterretxearen ekoizpena: diseinu grafikoa, kartelak, ilustrazioak eta marrazkiak. Lehenengoari dagokionez, logotipo eta ikusizko nortasun-zeinuetan zehazten dira ikusgai dauden piezak. Ekimen handiko gizona, berak proposatutako diseinuez gain, jasotako enkarguak ere bete zituen. Proiektu komertzialez gain arlo sozialetan ardaztutakoak ere interesgarriak dira, artistaren konpromezu sozial eta politikoarekin lerrotatzen baitira. Euskararen aldeko 'Bai euskarari' kanpainarako 1978an gauzatu zuen diseinua oso interesgarria da. Uso zuri eta gorri baten irudikapen eskematikoa

Nestor Basterretxearen trazu eta diseinuak, Durangon ikusgai

Testigantza baliotsua. Durangoko Arte eta Historia Museoak sortzaile bermeotarraren alderdi grafikoan ardazten den erakusketa ireki berri du



Erakusketak lau atal orokorretan sailkatzen du Basterretxearen ekoizpena. IGNACIO PÉREZ

da, abstrakzioetik hurbil dagoena. Euskararen aldeko itxaropen sinbolotzat har dezakegu, egilearen hitzetan fenix hegaztiaren antzekoa da eta. Izan ere, sugar gorrietatik hegan irteten da, berpiztuta. Artistaren planteamendu eskultorikoetan nabariak diren forma irmoak ikurraren konfigurazioan ere antzematen dira. Bis-

tan da Basterretxearen eskuetan adierazkortasun artistikoak diseinuaren muinean dagoen funtzionaltasunarekin bikain egiten duela bat.

Kartel askoren kasuan aurreko bereizgarri hori ere maiz betetzen da. Ez hori bakarrik, prozeduren aldetik, aipagarria da collagea, argazkia edota offset-aren

erabilera. Amnesty International erakunderako 1989an egindako kartelak, kolore gorria, zuria eta beltza maisuki konbinatzen ditu. Konposizioa bi zatitan banatzen da. Goiko aldean 'No a la pena de muerte' esaldiak mezu argia helarazten digu, itzuliturik gabe. Hizkien estilizazio geometrikoak European 1920 eta 1930. hamarka-

detan ugaritu ziren esperimenterazioen oihartzuna zabaltzen du. Azpiko aldean, gorri markatuta dagoen pertsona baten zuri-beltzeko marrazkia kokatzen da, urratutako hainbat zatitan banatuta.

Lehen aipatu dugunez, Basterretxeak ilustrazioan ere jardun zuen. Oso interesgarriak dira Juan Garmendia Larrañagaren argitalpenen orrialdeetan tartekatzen diren marrazkiak. Euskal folklorea eta tradizioen irudikapenak estiloz aldatzen dira liburu bakoitzera egokitzen diren heinean, planteamendu grafikoaren erakusgai aberatsak eskainiz.

Azkenik, aurreko ataletan gauzatu ez diren marrazkiek boro-biltzen dute erakusketa. Sortze-prozesu ororen atzean paperak eusten duen substratu grafikoaren eredu apartak dira. Zirriborroak edota gai ezberdinen inguruan trazatutako hurbilketak ikusiko ditu bisitariak.

Ekimen honi lotuta, aurtengo Durangoko Azokan Gerediaga elkarteak bere eskerrona adieraziko dio artista bermeotarrari abenduaren 7an ospatuko den ekitaldian. Horren ostean, Katrin Alberdi Egües-ek 'Nestor Basterretxea: marrazkitik abiatutako sormena' izeneko hitzaldia eman go du, artikulua honen aztergaia den erakusketaren testuinguruan. Izan ere, Katrin katalogoaren testuaren egilea dugu eta Basterretxearen obrarekin duen lotura ez da berria, EHUKo Arte Ederren Fakultateko irakasle eta ikerlari honek bere doktorego-tesia Basterretxearen ondare artistikoaren katalogazio eta kontserbazioan zehaztu zuen eta.

Lerro hauei amaiera emateko, Basterretxearen trazueta hurbiltzeko gonbita luzatzea besterik ez zait falta. Marrazki batzuek sormen prozesuaren muinera eramaten gaituzte. Horrez gain, komunikazio grafikoa kokatzen diren irudi eta diseinu grafikoko lanek beti dute zeresana, eta kasu honetan, Nestor Basterretxearen ekoizpenei buruzko testigantza baliotsua eskaintzen diete gure begiei.

Irakurleen miraria

ARANTXA URRETABIZKAIA



Galdetuko balidate zein den niretzat paisaiarik ederrena ziur asko itsasoa aipatuko nuke edo lorategi kuttun bat. Baina naturarekin zerikusia ez duen paisaia ere aipatu beharko nuke: Durangoko azokako irakurle zaparrada,

uholdea, bertako ilarak, liburu sinadurak, are modan jartzeko arriskuan dauden selfiak.

Eta bai, badakit zentzuren batean jendetza hori ispilatze engainagarria ere badela, ez duela urtean zehar gertatzen dena islatzen. Ispilatzea da,

baina baita errealitatea ere. Paisaia horrek niretzat duen garrantzia ulertzeko atzera jo behar dugu. Nire belaunaldikook euskarazko letren munduan abiatu ginenean, joan den mendeko hirurogeien hamarkadaren bukaeran, ez genuen ezer, ez bazen gogoia. Beraziki, ez genuen apenas irakurlerik.

Okerrago, gure aurrekoek ere ez zuten apenas irakurlerik izan. Aukeratu joan den mendeko lehen erdialdeko izenik handienak, idazlerik ezagune-

nak eta edozein aukeratzen duzula ere, halakoak ez zituen ehun irakurletatik gora izango. Esan dut ezer gutxi genuela, baina bagenuen zerbait: fedea. Sinesten genuen irakurleak etorri etorriko zirela, ikastolek sortuko zituztela.

Jaioko dira berriak, zen gure lelorik nagusienetako bat. Eta arrazoi genuen, geroak frogatu duenez. Eta, halere, Durangoko paisaia ez zegoen ezta gure ametsik gozoenean ere. Ez hori ez irakurle taldeak, ia gure herri-rik txikienean ere dauden

talde kementsuak. Ez genuen irakurlerik eta orain baditugu, are gehiago, irakurle antolatutak ditugu, sare estu bat osatzen duten taldeak.

Ez dakigu zenbat diren, ez daude elkarrekin harremanetan, ez dute beraien artean esperientzia partekatzen, ez ditugu aztertu. Baina Durangoko uholdea sortzen duten errekek dira. Niretzat, mirari zoriontsua, erakundearen aldetik arreta handiagoa merezi duena. Zaindu behar genituzke, bultzatu behar genituzke.